




GAZTERIA ZERBITZUA

www.aranguren.es



GAZTEENTZAKO JARDUERAK 2026KO URRIA-ABENDUA



LG NA 1441-2024



Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua

Instituto
Navarro de
la Juventud



Nafarroako
Gazteriaren
Instituta



punto de información
juvenil | gazteriaren
informazio gunea
Mutliva-Mutliloa

AHOLKULARITZA PSIKOLOGIKOA

Programa hau zuretzat pentsatuta dago: konfiantza- eta entzute-gunea, kezkatzen zaituenaz hitz egin, zalantzak argitu eta epairik eta etiketarik gabe laguntza profesionala aurkitu ahal izateko.



Oinarrizko Gizarte Zerbitzuarekin batera, 14 eta 35 urte bitarteko gazteentzako doako Aholkularitza Psikologikoa jarriko dugu martxan.

Gogoratu: laguntza eskatzea ausardia eta norberaren zaintzaren adierazpena da. Ez da beharrezkoa "hondoa jotzea" laguntza jasotzeko. Aholkularitzak zalantzak argitzeko, zure ongizatea hobetzeko edo estres egoerak prebenitzeko ere balio dezake.

Hemen gaude zurekin egoteko eta laguntzeko, badakigulako munduan norberarentzat lekua egitea ez dela beti erraza. Zalantzak, kezkak, beldurrak edo batzuetan bakarrik kudeatzea zaila egiten zaizkigun egoerak sortzen dira.



2014-1990



Hitzorduak:
astearteetan 8:00 – 11:00



9:30 – 13:30



espaciojuven31192@aranguren.es
689 80 87 32
juventud@aranguren.es
948 23 75 58



Doakoa



Gaztelaniaz



31192 Gaztegunean



PROGRAMAK

ESKOLA-LAGUNTZA SOZIOHEZITZAILEA

Ikasturte honetan berriro martxan jarriko dugu Eskola-Laguntza Soziohezitzailearen Programa, **Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailako eta DBHko 1. eta 2. mailako** gazteei zuzenduta. Programa hezkuntza-taldeak aurrera eramango du, eta parte-hartzaileei lagunduko die, bakoitzak bere erritmoan aurrera egin ahal izateko laguntza-giroa sortuz.

Saio bakoitzean, ordubete etxeko lanak eta ikasketa arloko kontuak egiteko erabiliko da, eta beste ordubetea, ohikoa izan den bezala, jarduera hezitzaileetan oinarrituko dira. Jarduera hauen bidez, elkarbizitza indartzeaz gain, lankidetzak, errespetua eta talde-lana bezalako balioak landuko dira.

Hala ere, aurten programak berrikuntza ugari eta formatu eguneratua dakar.

Aurreko urteetako eskaera handia dela eta, aurten programa zabaltzen jarraituko dugu, bi lan-talde osatzeko: astelehen eta asteazkenetan edo astearte eta ostegunetan. Ordutegia: 17:00–19:00.



Lehen Hezkuntzako 4., 5.
eta 6. maila / DBHko 1.
eta 2. maila



Astelehen eta asteazkenetan
edo astearte eta ostegunetan



17:00 – 19:00



Irailaren
10etik 21era



Doakoa



Gaztelaniaz eta euskaraz



31192 Gaztegunean





JARDUERAK



LARUNBATAK BERPIZTU

Urritik abendura, larunbatero goizean, 2014 eta 1996 artean jaiotako gazteentzako jarduerak egingo dira (izena emateko adinak jardueraren araberatik aldatuko dira).

Aisialdia, kirola, sormena eta askoz gehiago uztartzen dituen askotariko programazioa izango dugu.

Berpiztu larunbatak!

URRIA

ZERAMIKA TAILERRA

Adina: 2014-1996.

Eguna: urriaren 10ean, 17an eta 24an.

Ordutegia: 11:00–13:00.

Izen-ematea: irailaren 22tik 30era. Gehienez 15–20 pertsona.

Prezioa: 15 € errolatutako gazteentzat / 25 € errolatu gabekoentzat.

Hizkuntza: gaztelaniaz eta euskaraz.

Lekua: 31192 Gaztegunean.

ULTZAMAKO MIKOLOGIA-IRTEERA

Adina: 2014-1996.

Eguna: urriaren 3a.

Ordutegia: 11:00-13:30.

Izen-ematea: irailaren 10etik 15era. Gehienez 50 pertsona.

Prezioa: 8 € errolatutako gazteentzat / 12 € errolatu gabekoentzat.

Hizkuntza: gaztelaniaz eta euskaraz.

Lekua: Nafarroa.

BELDURREN ETXEA – HALLOWEEN

Adina: 2014-1996.

Eguna: urriaren 31.

Ordutegia: 11:00-13:30.

Prezioa: doakoa.

Hizkuntza: gaztelaniaz eta euskaraz.

Lekua: 31192 Gaztegunean.



AZAROA

3D DISEINU ETA INPRIMAKETA TAILERRA

Eguna: azaroaren 7an, 14an eta 21ean.

Ordutegia: 11:00-14:00.

Izen-ematea: urriaren 5etik 16ra. Gehienez 15–20 pertsona.

Prezioa: 20 € erroldatutako gazteentzat / 30 € erroldatu gabekoentzat.

Hizkuntza: gaztelaniaz eta euskaraz.

Lekua: 31192 Gaztegunean.

IRTERALDIA ARNEDILLOKO PUTZUETARA

Eguna: azaroaren 28a.

Ordutegia: 11:00-14:00.

Izen-ematea: urriaren 20tik 30era. Gehienez 50 pertsona.

Prezioa: 5 € erroldatutako gazteentzat / 10 € erroldatu gabekoentzat.

Hizkuntza: gaztelaniaz eta euskaraz.

Lekua: Nafarroa edo Errioxa.

ABENDUA

GABONETAKO APAINKETA TAILERRA + TXOKOLATE-JANA

Eguna: abenduaren 12a.

Ordutegia: 11:00-14:00.

Izen-ematea: azaroaren 16tik 27ra.

Prezioa: doakoa.

Hizkuntza: gaztelaniaz eta euskaraz.

Lekua: 31192 Gaztegunean.

GABONETAKO AZOKARA BISITA

Eguna: abenduaren 19a.

Ordutegia: 11:00-13:00.

Izen-ematea: azaroaren 16tik 27ra.

Prezioa: doakoa.

Hizkuntza: gaztelaniaz eta euskaraz.

Lekua: 31192 Gaztegunean.



ARANGUREN KONEKTATU


Ongizate emozionaleko tailerra

Sentitzen duzuna hobeto ulertu, estresa kudeatzen ikasi eta beste pertsonekin dituzun harremanak hobetu nahi dituzu?

12 eta 16 urte bitarteko nerabeentzako taldeko eta parte-hartzeko gune bat eskaintzen dizugu, ongizate emozionalerako tresnak modu praktikoan ikasteko pentsatua.

6 saiotan zehar, emozioak identifikatu eta adieraztea, estresa eta antsietatea kudeatzea, autoestimua eta gatazkak konpontzea landuko ditugu. Horrez gain, udalerrian eskuragarri dauden laguntza-baliabideak ezagutuko ditugu.

Gune seguru eta konfiantzazkoa, partekatze, ikasteko eta zure eguneroko bizitzan erabil ditzakezun tresnak eramateko.



2014-2010



Astearte, ostegun edo ostiralean, urria edo azaroan (profesionalarekin zehazteko)



17:00 - 18:30
(profesionalarekin zehazteko)



Irailaren 22tik 30era
(gehienez 20 pertsona)



Doakoa



Gaztelaniaz



31192 Gaztegunean



IDAZKETA TAILERRA

Idaztea edo istorioak asmatzea gustuko duzu? Tailer hau sortzeko eta idazketaz ikasteko gogoa duten pertsona guztientzat pentsatuta dago, giro dinamikoko eta parte-hartzaile batean.

Bi talde egongo dira, adinaren arabera egokituta: 12 eta 16 urte bitarteko gazteentzako bat, eta 17 eta 30 urte bitarteko pertsonentzako beste bat, talde bakoitzaren beharretara egokitutako jarduera eta proposamenekin.

Gainera, gaztelaniaz zein euskaraz idatzi eta testuekin lan egin ahal izango duzu. Horrela, parte-hartzaile bakoitzak eroso sentitzen den hizkuntzan adierazi ahal izango du bere burua, edo baita bi hizkuntzetan sormena garatu ere.

Idazteko modu berriak ezagutu, zure istorioak partekatu eta irudimenari hegoin egiten utzi. Zure zain gaude!



2014-2010 / 2009-1996



Urriatik maiatzera,
hilean asteazken bat



19:00 - 20:00



Irailaren 22tik 30era
(gehienez 12 pertsona)



Doakoa



Gaztelaniaz eta euskaraz



31192 Gaztegunean



GAZTEEN IRAKURKETA KLUBA

Irakurtzea eta zure irakurketen inguruko iritziak beste pertsonekin partekatzea gustuko baduzu, batu gure Gazteen Irakurketa Klubera! Istorio berriak ezagutzeko, iritziak trukatzeko eta irakurketaz beste modu batean gozatzeko gunea da.

Bi talde egongo dira, adinaren arabera egokituta: 12 eta 16 urte bitarteko gazteentzako bat, eta 17 eta 30 urte bitarteko pertsonentzako beste bat, talde bakoitzak bere interesekin bat datozen irakurketaz eta eztabaidez gozatu ahal izateko.

Hilean liburu bat irakurriko da, eta klubeko saioetan landuko dugu, dinamikak, eztabaidak eta irakurgaiarekin lotutako jarduerak eginez. Gainera, irakurketak gaztelaniaz zein euskaraz egin ahal izango dira, parte-hartzaile bakoitzak nahiago duen hizkuntza aukeratu ahal izateko.

Murgildu istorio berrietan, trukatu ikuspuntuak eta gozatu irakurketaz gazte irakurleentzat sortutako gune batean.

Animatu eta parte hartu!



2014-2010 / 2009-1996



Hilean bi ostegun
(gehienez 20 pertsona)



19:00 - 20:00



Doakoa



Gaztelaniaz eta euskaraz



31192 Gaztegunean



TAILERRAK ETA IKASTAROAK

LEHEN SOROSPENETAKO IKASTAROA

Larrialdi baten aurrean nola jokatu jakingo zenuke?

Ikastaro honetan, lehen sorospenen oinarrizko ezagutzak ikasiko dituzu, eguneroko bizitzan gerta daitezkeen egoeretan azkar eta eraginkortasunez erantzuteko.

Ikastaroa urrian egingo da, 4 orduko 5 saiotan, asteartero 16:30etik 20:30era. Ikastaroa amaitzean, ziurtagiri bat jasoko duzu.

Prestakuntza praktiko eta dinamikoaren bidez, istripuen, zaurien, erreduren eta itotzeen aurrean nola jokatu, bihotz-biriketako bizkortzea (BBB) eta eguneroko bizitzan gerta daitezkeen beste larrialdi-egoera batzuk ezagutuko dituzu. Ezagutza horiek bizitza bat salbatzen lagun zaitzakete.

Erreserbatu zure plaza!



2012-1996



Urriaren 6an, 13an, 20an eta 27an eta azaroaren 3an



16:30 - 20:30



Irailaren 10etik 21era
(gehienez 20 pertsona)



Doakoa



Gaztelaniaz eta euskaraz



31192 Gaztegunean





JARDUERAK

AKTIBATU GAZTEGUNEAN!



Mugitzeko, entrenatzeko eta ondo pasatzeko gogoz?

Gure Gaztegunean entrenamendu funtzionaleko eskolak jarriko ditugu martxan gazteentzat, maila guztietara egokitutako ariketa dinamikoekin.

- Indarra, erresistentzia eta koordinazioa hobetu
- Taldean entrenatu eta giroaz gozatu

Etorri probatzera eta ezagutu sasoian jartzeko beste modu bat!

Zure zain gaude!



2011-1996



Urriaren 7an, 14an, 21ean
eta 28an (asteazkenetan)



19:00 – 20:00



Irailaren 22tik 30era
(gehienez 20 pertsona)





Doakoa



Gaztelaniaz eta euskaraz



31192 Gaztegunean



JARDUERAK

SALSA ETA BATXATA VIBES



**Plan aspergarria?
Etxean geratzea?
Hobe gurekin gorputza mugitzera etortzea!**

Gaztegunek Salsa eta Batxata eskolak dakartza, dantza ikasteko, pixka bat izerditzeko eta, batez ere, primeran pasatzeko!

- Oinarrizko pausoak ikasi
- Jende berria ezagutu
- Musika bikaina eta giro ona

Ondo pasatzeko gogoia besterik ez duzu behar.

Zure zain gaude!

Plaza mugatuak... eta bai, azkar betetzen dira!



2011-1996



Azaroaren 4an, 11n, 18an
eta 25ean (asteazkenetan)



19:00 – 20:00



Urriaren 13tik 23ra
(gehienez 25 pertsona)



Doakoa



Gaztelaniaz eta euskaraz



31192 Gaztegunean



JARDUERAK

ARANPRIX

**Barrez, adrenalinaz eta lehiak
betetako hilabeterako prest?**



Aurten, Interkuadrillen formatu zaharra berreskuratuko dugu. Azaroaren 13an, 20an eta 27an, ostiraletan, ARANPRIX iritsiko da: arratsalde hauetan, kuadrillak izango dira benetako protagonistak.

Lehiaketa handi batean arituko zarete, eta bertan trebetasuna, bizkortasuna, asmamena, koordinazioa eta talde-lana probatuko dituzten proba eta erronka ugari izango dituzue aurrez aurre. Erronka bakoitza desberdina izango da; beraz, egoera guztietara egokitzeko gai zaretela erakutsi beharko duzue.

Kuadrilla osatuena bakarrik izango da garaile... Eta, noski, sari berezia izango du kuadrilla irabazleak.

Mugitu zure kuadrilla eta etorri arratsalde desberdinez gozatzeko gogoz.

Iritsi da zuen kuadrillak ARANPRIXeko txapeldun izatea merezi duela erakusteko unea!



2010-1996



Azaroaren 13an,
20an eta 27a



20:00



Urriaren 19tik
azaroaren 7ra



15 € kuadrillako



Gaztelaniaz eta euskaraz



31192 Gaztegunean



JARDUERAK

ARTE ERAKUSKETAK

Pintatu, argazkiak, ilustrazioak, eskulturak edo beste edozein diziplina artistiko egiten duzu? Gaztegunean gazteen talentua ezagutarazi nahi dugu, zuen obrak erakusteko leku bat jarriz.

Espazio hau artista gazteek beren sorkuntzak erakusteko, beste pertsona batzuekin partekatzeko eta beren lana ezagutarazteko pentsatuta dago.



2014-1996



Gaztelaniaz eta euskaraz



31192 Gazteguneko
arteen aretoan





JARDUERAK

ANIMARANETXEA GABONETAN

Eskola-opor hauetan ez dago aspertzeko aitzakiarik: Animaranetxean dibertsioz eta esperientzia berriz betetako goizak dituzu zain.

Ondo pasatzeko gogo guztiak asetzeko pentsatutako jardueraz gozatu ahal izango duzu: eskulan-tailerrak, sukaldaritza, kirola, txangoak eta talde-jolasak, besteak beste. Egun bakoitza desberdina izango da, eta datorren urtean berriro etorri nahi izatea eragingo dizuten proposamen berriak izango ditugu.

Jarduerak Gabonetan eskola-oporraldiko egunetan egingo dira, giro seguru, hurbil eta energiaz betean. Gauza berriak probatzeko, jende berria ezagutzeko eta Gabonetako magia konpainia onean bizitzeko aukera ezin hobea da.

Etorri eta batu Animaranetxearen Gabonetako abenturara! Zure lagun ezkutuak zuretzat pentsatutako opari batekin itxaroten dizu...



2014-1996



Azaroaren 3tik 13ra



Abenduaren 21ean, 22an, 23an, 24an, 28an, 29an, 30ean eta 31n, eta urtarilaren 1ea



15 € erroldatutako gazteentzat / 25 € erroldatu gabekoentzat (abenduaren 15etik 17ra)



09:30 - 13:30



Gaztelaniaz eta euskaraz



ZERBITZUAK

JOAN TA ETORRI

Ohitura bihurtzen ari den bezala, Gazteriaren Egunetik aurrera eta uda barne, **JOAN TA ETORRI 2026** zerbitzua izango dugu.

Zerbitzu honen helburua alkoholaren eta beste substantzia batzuen kontsumoak eragindako trafiko-istripuak prebenitzea da, betiere 16 urtetik gorako herritarrak kontuan hartuta eta 30 urtera arteko gazteei lehentasuna emanez.

Aurten, helmugak eta ordutegiak Haraneko Kontzejuetako gazte-ordetzaiekin adostu dira. Denboraldiko zerbitzuari amaiera emateko, aurten Nafarroa Oinez izango dugu helmuga.



NAFARROA OINEZ
ZIZUR NAGUSIA eta GALAR - 4 €

Urriaren 18a
Joaneko: 9:30
Itzulera: 19:30

Oraindik alta eman ez baduzue, webgunean izena ematera animatzen zaituztegu: <https://aranguren.voyvengo.es>. Bertan erosi ahal izango dira txartelak.

Beti bezala, 18 urtetik beherakoek baimen bat aurkeztu beharko dute. Baimena Udalaren webgunetik deskargatu edo **31192 Gaztegunean** eskatu ahal izango da.

ZERBITZUAK



HILEKO ZINEFORUMA

Hilero bi zineforum antolatzen dira: bata euskaraz eta bestea gaztelaniaz. Programazio askotarikoa eskaintzen da, genero, gai eta estilo desberdinekin, gustu guztientzako proposamenak egon daitezen.

Proiektzio bakoitzaren ondoren, nahi dutenek solasaldi batean parte hartu ahal izango dute filma komentatzeko, iritziak trukatzeko eta ikuspegi berriak ezagutzeko, giro hurbil eta parte-hartzailean.

Hilean bi film, bi hizkuntza eta helburu bera: zinemaz gozatzea, ideiak partekatzea eta istorio bakoitza beste modu batean bizitzea.



2014-1996



Hilabeteko
azken asteburua



Doakoa



Gaztelaniaz eta
euskaraz



31192
Gaztegunean





ZERBITZUAK

PODCASTA

31192 Gaztegunearen Podcasta iritsi da!

Proiektu berri bati ekingo diogu, eta bertan gazteen ahotsa izango da protagonista.

Gazteek egindako eta gazteentzat pentsatutako podcast bat sortuko dugu. Bertan, haraneko eta bertako gazteen inguruko gaurkotasuneko gaiak jorratuko ditugu.

Gai eta gonbidatuen inguruko proposamenak jasotzeko prest gaude. Entzuten zaituztegu!

Ideiak, istorioak, pasadizoak eta askoz gehiago partekatzeko gune aske, dinamiko eta dibertigarria izango da, Arangurengo Haraneko gazteei buruz hitz egiteko.

Hurbildu eta informatu zaitez.





ZERBITZUAK

31192 LEHIAKETATXOA

Astearteko Lehiaketatxoa iritsi da!

Dena dakizula uste duzu?

Jarri zure ezagutzak proban 31192 Lehiaketatxoarekin!

Adi egon asteartetan, 20:30ean, gure Instagram istorioetara. Bertan, hainbat galdera argitaratuko ditugu inkesta-formatuan, Haranari, kulturari, kirolari, gaurkotasunari, historiari eta beste hainbat gairi buruz.

Parte hartzea oso erraza da: gure Instagram istorioetako inkestei erantzun besterik ez duzu egin beharko. Gainera, ondo pasatzeaz gain, ikasturtean zehar hainbat sari irabazteko aukera izango duzu.

Asteartero, erronka berri bat. Galdera guztiak asmatzeko gai izango al zara?

¿Nola funtzionatzen du?

- Erantzun zuzen gure istorioetako galdereri.
- **Zenbat eta azkarrago erantzun, orduan eta puntu gehiago lortuko dituzu.**
- Azkarrenek sailkapenaren buruan egongo dira, eta hilero irabazleak saria jasoko du.

Astero gai desberdin bat izango dugu. Adi gure WhatsApp buletinari, agian pistaren bat aurkituko duzu bertan...

Jarrai gaitzazu Instagramen eta aktibatu jakinarazpenak, ezer ez galtzeko.

Astearteetan, 20:30ean, ordubete besterik ez. Azkarrenetakoa izango al zara?



ZERBITZUAK

WHATSAPP KOMUNITATEA



31192 Gaztegunean gertatzen den guztia ezagutu eta ezer ez galdu nahi duzu?

WhatsApp Komunitatea sortu dugu, eta bertan informazio guztia unean bertan partekatuko dugu:

- Jarduerak eta ekitaldiak
- Podcastaren berriak
- Gazte Zirkuluaren datak
- Lehiaketatxoaren gogorazpenak
- Eta sorpresa gehiago!

Astelehenero, 20:30

aldera, asteko berriak eta gogorazpenak bidaliko ditugu, gertatzen den guztiaren berri izan dezazun.

Antolatzen dugun guztiaren berri izateko modurik azkar eta erosoena da.

- Jaso zuzeneko jakinarazpenak
- Ez galdu jarduerarik
- Jaso informazioa inor baino lehen

Galdetu Gaztegunean komunitatera gehitzeko.

Egin komunitatearen parte eta mantendu konektatuta!



INFORMAZIOA



Tailer, ikastaro eta jardueretako plazak mugatuak dira. Jarduerara aurrera eramateko, gutxieneko izen-emate kopuru bat behar da. Gutxieneko kopuru hori lortzen ez bada, jarduera bertan behera geratuko da.

Jardueraren plaza guztiak betez gero, izena eman duten pertsonen artean zozketa egingo da, eta Arangurengo Haranean errol-datutako gazteek lehentasuna izango dute. Zozketa egin ondoren, onartutako pertsonen SMS bidez jakinaraziko zaie.

Izen-ematea egiteko, **948 012 012** telefonora deitu behar da, 8:00etatik 18:00etara, edo Udalaren webgunearen bidez, QR kode honen bitartez, "JARDUERETAN IZEN-EMATEA" botoian klik eginez.

Programazioan gertatzen den edozein aldaketa sare sozialetan eta Udalaren webgunean argitaratuko da.



GAZTERIA ARLOA



juventud@aranguren.es



948 23 75 58

31192 GAZTEGUNEA



espaciojoven31192@aranguren.es



689 80 87 32



@ej31192gg



Espacio Joven 31192
Gazte Gunea



Anaitasuna etorbidea, 27
31192 Mutiloa